



AMAIA GARMENDIA / xabier otamendi / **uztarria**



liburuxkabiografikoak liburuxkabiografikoak liburuxkabiografikoak 5

Amaia Garmendia

Xabier Otamendi

uztarria

© Egilea. Xabier Otamendi Izeta

© Uztarria Komunikazio Taldea

2010eko uztaila

Azala. Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak (Azpeitia)

Diseinua eta maketazioa. Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak

Inprimaketa. Leitzaran Grafikak (Andoain)

Uztarria Komunikazio Taldea.

Helbidea. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia (Gipuzkoa), 20730

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Telefono zenbakia: 943 15 03 58

Fax zenbakia: 943 15 03 58

Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

webgunea: www.uztarria.com

AURKIBIDEA

Amaia Garmendia Altuna	07
Garmendia Altuna sendia	08
Elizkaleko neskatoa	10
Eskolatik lanera	13
Gitarrarako zaletasuna	17
Amagar	19
Antzerkia	22
Miopia	24
Elizkaleko festak	25
Amnistia taldean zuzendari	28
Karnabaletako mozorroak	29
Porto Novo	31
‘Animalista’	36
‘Isokarrue’	39
Bikote harremanak	41
Ebarekin lehen harremana	42
Lesbianen arteko ezkontza	45
Ezkontzarako prestaketak	49
Elizaz ezkontzea nahi	50
Biografia ez da amaitzen	52

AMAIA GARMENDIA ALTUNA

Gitarrista, irakaslea, *animalista*, Elizkalekoa, garbitzailea, emakume batekin ezkondu den lehenengo azpeitiarra... Guzti hori baino askoz ere gehiago da Amaia Garmendia Altuna.

Eba Iturain Solaberrieta du emaztea 2005etik, eta harekin bizi da Elizkalean. Hala ere, asteko egun batzuk Zarautzen pasatzen ditu Ebak, amarekin egoteko. 2000. urtean ezagutu zuten elkar eta ordutik batera daude bi emakumeak.

Ezaguna da Amaiaren *Muxu* txakurra, baina ez da etxean daukan animalia bakarra; izan ere, txoria eta katua ere baditu. Gainera, kaleko katuentzat jatekoa uzten du ganbaran, beti ere bizilagunen oniritziarekin. Ezin esan animaliak gustatzen ez zaizkionik. Ez da animalien eskubideak aldarrikatzen dituen kartelik falta izaten herriko kaleetan, berak egiten duen lanari esker.

Urte asko daramatza gitarra jotzen erakusten eta kontzertuak ematen ikasleekin. Antzerkian ere ibiltzen da, eta urtean antzerki lan bat prestatzen dute. Horrez gain, danborradako zuzendari lanak egiten urteak pasa zituen Amnistiako taldean.

Ez da nekatu erraza Elizkaleko festen antola-

tzailea, eta ez da berehalakoan etsitzen duten horietakoa. Gauza guzti horiek eta Amaiaren beste hainbat kontu erakusteko argitaratu du Uztarria Komunikazio Taldeak liburuxka biografiko hau, eta irakurtzen jarraitzen baduzue, hala dela ikusiko duzue.

GARMENDIA ALTUNA SENDIA

Aita Jose Mari, ama Maria, eta seme alabak Karmel, Jexux Mari, Olatz, Mikel, Amaia, Maite eta Miren. Horiek dira Garmendia Altuna sendia osatzen zutenen izenak. Mari Karmen, Miguel Angel eta Nerea ere jaio ziren, baina haurrak zirela hil ziren hiruak.

Aita-amak, biak, abertzaleak ziren. Aita preso egon zen 1936ko Gerra Zibilaren ondoren. Hori gutxi ez, eta heriotza zigorrera ere kondenatu zuten; ez behin bakarrik, zazpi aldiz zigortua izan baitzen heriotzara. Azkenean, ordea, ez zuten hil eta kartzelatik ere atera zuten halako batean. Ama ere abertzalea, beste emakume asko bezalaxe, Ondarretako kartzelara eramán zuten preso. Aitarekin egin moduan, hura ere aske utzi zuten denborarekin.



Amaia eta Mikel bikiak,
baserritarrez jantzita.



Garmendia-Altuna
familiko anaia-
arrebek elkarrekin
ateratako argazkia.
Amaia ezkerrekoa da
besoak gurutzatuta.

Karmel eta Mari Karmen izan ziren Jose Mari eta Mariaren lehenengo seme alabak. Bikiak ziren, baina urte hartan bertan hil zen neska. Hurrengo urtean, Jexux Mari jaio zen. 2007an hil zen, gaixotasun luze baten ondoren. 1948an, neskatoa jaio zen, Olatz, hain zuzen. Hemeretzi urterekin moja sartzeko erabakia hartu zuen, eta halaxe jarraitzen du gaur egun, Done Mariako komentuan (Nafarroa) dago bizitzen. 1952an, Mikel hil zen, bost urte zituela, eta 1953an, Nerea bi urterekin.

1953an, bikiak jaio ziren berriro ere Garmendiatarren etxean: Amaia eta Mikel, neska-mutilak. Mikelek apaiz izateko bokazioa zuen eta apaiztu egin zen. Urte asko daramatza Swazilandian (Afrika), hango biztanleei ahal duen heinean laguntzen. 1957an jaio zen Maite, eta 1959an, Miren. Amaia eta Karmel bezala, Azpeitian bizi dira biak. Miren izan zen Jose Mari eta Mariaren azkeneko haurra. 1973. urtean hil zen ama, eta 1977an, berriz, aita.

ELIZKALEKO NESKATOA

Elizkalean jaio ziren Amaia eta Mikel, 1953ko otsailaren 18an. Ez egun bizi den etxe berean,

orain Xaxarkineko denda den etxepean, bigarren pisuan, baizik. Ederki gogoratzen ditu bere kale inguruan, bueltaka, jolasean ibiltzen zireneko garaiak: “Txorro morrozka, soka saltoan, tomate potoekin danborradan, indiozka jolasten... Eguna jolasean pasatzen genuen”.

Lau urte zituela hasi zen eskolara joaten. Esklabetan, mojek zuzendutako ikastetxean ibili ziren lau ahizpak. Eskolan debekatuta zeukaten euskaraz egitea eta “hori zen txarrena” Amaiarentzat: “gogorra egiten zitzaidan oso”.

Diktaketa asko egiten zituzten eskolan, eta egun batean “*la historia de Franco*” idatzi beharra zeukatela esan zien Josefina Meana Ahizpak. “Nik nekiena idatzi nuen. Aita kartzelan sartu eta hiltzeko agindu zuela, ama ere kartzelan eduki zuela... Moja hura espainiolista hutsa zen, euskaldunen kontrario amorratua, eta guzti hori irakurri zuenean, haserretuta papera bera baino zero handiagoa jarri zidan. Beldurrez abiatu nintzen etxera, gurasoek botako zidaten errietagatik. Aurrena amari erakutsi nion eta gustura jarri zen azalpenak irakurri zituenean. Gainera, ‘oso ondo zion, egiye esan den da’ esatearekin batera propina eman zidan. Aitak ere gustura irakurri zuela gogoratzen dut”.

Eskolan beti saltsan ibiltzen zela ere kontatzen du: “gaiztakeriatan denak petraltzen ibiltzen nintzen. Behin baino gehiagotan bidali ninduten etxera”. Garai hartan, Gogo Jardunak egiten zituzten ikastetxeetan. Horrek esan nahi zuen hiru egun Esklabetan pasatu behar zituela Amaiak, errezoan. “Gau batean ohetik jaiki eta guztiak lo zeuden bitartean, esne ontzi bat hartu eta gelaz gela jotzen hasi nintzen, guztiak esnatuz. Gainera, berogailuaren hodiak ere jotzen nituen, eta hodiak gela guztietara iristen zirenez, zarata horietatik zabaldu eta denean entzun zen”. Azkenean, harrapatu zuten, baina ez zuten etxera bidali.

“Hurrengo goizean, sermoia entzun beharra izan genuen eta gauean lo gutxi eginda nengoenez, lo hartzen nuen sermoia entzun beharrean”. Aldamenekoa saiatzen omen zen Amaia esnatzen, baina ezin zion logurari eutsi. Orduan, Beatriz Zabala mojak harrapatu zuen. “Andre ona zen, eta gainontzeko umeek nire alde, mojaren erabakiaren kontra, protesta egin bazuten ere, sermoian lo hartzea ezin onartu eta etxera bidali ninduen. Amorru handia eman zidan, baina denborarekin konturatu nintzen arrazoiarekin bidali ninduela etxera”. Hala ere, Amaiari “min ematen” dio oraindik Gogo

Jardunetatik bidali zutela gogoratzeak. “Urteak pasata, hitz egin nuen Beatriz Zabala mojarakin, eta oraindik barruan neukan mina azaldu nion. Jakin balu, ez ninduela bidaliko erantzun zidan. Baina, bidaltzearekin ongi egin zuela erantzun nion nik, merezita neukala”.

Beste batean, “dezenteko iskanbila piztu” zutela dio. “Dolores Odriozola eta biok bazkaltzeko emango zigutenagatik eztabaidan hasi ginen. Isiltzeko esanagatik ere ez genion kasurik egin maistrari. Azkenean, hiru egunerako etxera bidali gintuzten”. Baina etxean ez zen inortxo ere enteratu. Etxetik beti bezala irteten zuten, eta bueltatu ere bai. “Gaur egungo justifikante eta ezer ez zegoenez, ezer gertatu ez balitz bezala pasa zen istilu hura. Lagun bat, Olatz Odriozola, gaixorik zegoen eta haren ama kanpoan zen bitartean laguna bisitatzera joan ginen hiru egun haietan. Bisitan *Celtas* zigarroak erretzen egoten ginen. Oso neska bihurria nintzen, maleziarik edo asmo txarrik gabekoa”.

ESKOLATIK LANERA

Hamalau urterekin bukatu zituen Esklabetan egin beharreko guztiak, “eta aitak hala galdetu zidan

beste anai-arreba guztiei bezala: ‘Ikasten jarraitu ala lanera?’. Erraza izan zen erantzuna. Ikaste kontu hori orain ez zait gehiegi gustatzen, eta lehen gutxiago. Lanari ekiteko erabakia hartu nuen”.

Elizkalean janari denda zuten Amaiaren aitagia eta izeba Kandik. SECUC izeneko elkarteko lehen-dakaria eta diruzaina zen aita. Dendaren atzeko aldean, biltegi txiki bat zeukaten, eta herriko gaitz nontzeko janari dendak hornitzen zituzten. “Hori zen nire eginbeharra. Aitonak egindako bi gurrupildun karroa hartu eta dendaz denda ibiltzen nintzen banaketak egiten. Askotan propina ere ematen zidaten eta ni gustura”. Sei edo zazpi denda izango ziren orduan Azpeitian, eta egungo dendekin konparatuta eskariak askoz ere txikiagoak izaten zirela gogoratzen du Amaiak. Denborarekin, dendan bertan egoten ere hasi zen saltzaile lanean. Gainera, SECUC indarra hartzen joan zen, eta dendetan banaketak egitera kamioia etortzen hasi zenez, zerbitzu hori emateari utzi zioten.

Banaketena ez zen Amaiak egiten zuen lan bakarra, ordea. “Aitonak dendaren atzeko aldean alpargatak prestatzen zituen. Elizkaleko beste lokal batean, Astigarraga denda zegoen, eta atzeko aldean alpargataren zolak egiten zituzten. Bi lagun ari-

Amaia eskolako lagunekin. Behean,
ezkerrean, makurtuta ageri da.



Aitak eta izebak Elizkalean zuten
janari dendan egiten zuten lana

tzen ziren tailer txiki hartan. Haietako bat izeko Kandi zen. Aitonak zola haiek jaso, bakoitzarentzako telak prestatu eta inguruko etxeko andre batzuei ematen zizkien, zolak eta oihala elkarri josteko. Bukatutakoan, aitonak paketea prestatu eta bizikletako parrilla alpargataz beteta Azkoitira joaten nintzen oinetakoak entregatzera”.

Hamasei-hamazazpi urte zeuzkala, Hendaiaira joan zen taberna batean lan egitera. “Hilabete egin nuen, baina latza izan zen. Tabernatik irten gabe egon nintzen Hendaian pasatu nuen hilabete hura. Goizean taberna ireki, eta itxi arte han egoten nintzen. Gauean, berriz, tabernako lurrean koltxoiak bota eta bertan egiten genuen lo bi lagunek. Bata batekin sartu eta berarekin irten nintzen. Egun batean sudurretik odoletan hasi nintzen, baina inortxok ere ez zidan esan lana uzteko, ezta zauria sendatzeko ere. Lanean jarraitu beste erremediorik ez nuen izan”. Igandero, mezetara joateko ohitura zuen Amaiak garai hartan, baina Hendaian egindako hilabeteen ezin izan zuen joan nagusiek lokaletik irteten uzten ez ziotelako. Illegalak zirenez, kanpoko norbaitek ikusi eta arazoak izango zituztenaren beldurrez, tabernan sartuta egonarazten zituzten. “Sukaldean ontziak garbitu eta garbitu... espe-

rientzia oso gogorra izan zen”. Beste uda batzuetan ere ibili zen Amaia Eibarko taberna batean lanean, baina ez hain egoera prekarioan.

Hainbat uda kanpoan lanean pasatu izanagatik, denda itxi zuten arte ez zion inoiz utzi saltzaile bezala lana egiteari. Izeba erretiratu zenean, Amaiak eta bere ahizpa Mirenek bertan jarraitzeko asmoa zuten hasiera batean, baina lokalaren alokairuak gora egin zuen. “Kontuak ateratzen hasi eta irabaziak lortzea zaila izango zela konturatu ginen eta pare bat hilabetera denda itxi genuen”. Lana alferrik egitea inori gustatzen ez zaionez, denda ixtea erabaki zuten, eta bakoitza bere alde-tik abiatu zen 1986an.

Orduan hasi zen etxebizitzak eta tabernak garbitzen, eta oraindik ere hori du ogibidea. “Hiru lagun ibiltzen gara normalean, hainbat etxe eta taberna garbitzen. Ez kontatzeko modukoak dira parranda handien ondoren tabernetako komune-tan garbitu behar izaten ditugunak”.

GITARRARAKO ZALETASUNA

Jende askok ezagutzen du *Elizkaleko Gitarristie* bezala. Hamabi-hamahiru urte zituenean hasi zen moje-

kin gitarra jotzen ikasten. “Oso ikasketa basikoak izan ziren, akorderen bat edo beste. Geroago, neure kontura ikasi dut. Ezagutzen ez nuen akorderen bat jotzen ikusten banuen norbait, galdetu egiten nion, pixkanaka ikasten joateko. Liburuak ere erosi izan ditut, eta behin bideo bidezko ikastaro bat egin nuen, baina oso artifiziala iruditzen zait. Ez da benetakoa, ezin diozu galderarik egin, bere azalpenak ematen doa eta ez da gelditzen. Lagundu zidan, baina gehiena neure kasaka ikasi dut”.

Amaiaren aita pontekoa zein zen jakinda, errazago ulertzen da musikarako duen zaletasuna. Urrustilgo Xebastian Errasti *Xaxurre*-ren besotakoa da. Musika tresnak jotzen inork erakutsi gabe ikasi zuen Xaxurrek. Berak ere egiten zituen instrumentuak, eta musika tresna berri bat hartzen zuenean, hain belarri ona zuenez, bere kasaka ikasten zuen jotzen. Amaia umea zela hil zen, baina hala ere, aita pontekoak eraginen bat utzi diola esan liteke.

Baina, Amaia ez da herrian ezaguna gitarra jotzen duelako bakarrik, baita musika tresna hori nola jotzen den erakusten duelako ere. “Norbaitek komentatu zidan behin ea zergatik ez nintzen kla-seak ematen hasten”. Dirudienez ideia interesgarria iruditzen zitzaion eta hala hasi zen bere etxean

gitarra nola jo irakasten. “Hasieran neure kasaka hasi nintzen etxean eskolak ematen, eta berandua-go, Udalarekin harremanetan jarri eta lokala utzi zidaten. Halere, lokalen falta zegoela argudiatuta, moztu egin zuen nirekin zeukan hitzarmena”.

Lehenago ibiltzen zen bezala, etxean klaseak ematen, jarraitu behar izan zuen. Azkenetako, Udalak berriro lokal bat utzi dio klaseak emateko. “Sindikatu Zaharreko azkeneko pisuan ematen diet klasea zenbait neska eta emakumeri”. Parekidetasun Sailak hainbat tailer antolatzen ditu, eta Emakumeen gitarra tailerra emateaz ardura-tzen da Amaiak. “Nolanahi ere, etxean ikastaroak ematen jarraitzen dut. Talde bakoitzari astean bi ordu eskaintzen dizkiot. Udaleko lokaletan bi ordu-ko saio bat egiten dut astean; etxean biltzen den taldearekin, berriz, ordubeteko bi saio”.

AMAGAR

Herri pila pasatu zituen Garbiñe Odriozolarekin batera kontzertuak ematen Amaiak. *Amagar* izena zuen bikoteak –**Amaia** eta **Garbiñe** izenetatik dator– eta urte batzuk pasa zituzten herriz herri gitarra hartuta. “Biek jotzen genuen gitarra;

Garbiñek ahots altuak egiten zituen, eta nik baxuak. Dirurik ez genuen irabazten, afariaren edo bazkariaren truke abesten genuen, eta gasolina ordaintzea asko izaten zen. Ordaineko otordu horietako batzuetan, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Urko eta beste hainbat abeslarirekin afaltzeko zortea izan genuen”.


Hainbeste kontzerturen ondoren, diskoa ateratzeko erabakia ere hartu zuten. “Horretarako, bi lagun fitxatu genituen: Unai Frantzetsena eta Jon Ostolaza. Lehenengoak bateria jotzen zuen, eta bigarrenak, berriz, eskusoinua. Bizkaian egin genituen grabaketak; bi edo hiru hilabete iraun zuten. 500 bat kopia atera genituen, eta oso ongi saldu zen gainera, nahiz eta gastuak enpazteko balio izan zuen. CDarekin ere ez genuen dirurik irabazi”. Diskoa atera eta beste urtebete inguru iraun zuen bikoteak. “Garbiñe ezkondu eta Debara joan zen bizitzera. Gerora haurdun geratu zen eta taldea desegitea erabaki genuen”. Amaiak ez dio utzi, ordea, kontzertuak emateari, sarri-sarri izaten baititugu herrian hark eskainitako kontzertuak.

Beste talde bat ere sortu zuen 1990eko hamarkadan Amaiak. “Emakumez osatutako taldea zen. Gitarra, perkusioa eta ahotsarekin osatutakoa.

Garbiñe Odriozolarekin batera herri pila
pasatu zituen Amaiak kontzertuak ematen.
Amagar izena zuen bikoteak.



Makina bat laguni erakutsi dio
gitarra jotzen Amaiak. Argazkian,
ikasle talde batekin atera da.



Kontzertu bakarra eman genuen. Ikasleak ziren taldeko partaide asko, eta uda amaitu zenean kanpora joan ziren ikastera. Udalak antolatutako kontzertua izan zen eskaini genuen hura, eta Anje Duhalderen aurretik jo genuen”.

ANTZERKIA

2006an hasi zen Amaia Emakumeen Antzerki Tailerrean. “Asko kostatzen zait gidoiak ikastea. Txikitan kostatu egiten zitzaidan, eta orain ere bai. Baina, ez naiz erraz etsitzen duen pertsona, eta, era batera edo bestera moldatzen naiz antzeztzen”. Euskal Antzerki Topaketatan bi antzerki egin dituzte: *Habemus Circus* eta *Autobusaren zain*. “Lehenengoan domadorearena egiten nuen neure txakurrarekin. Hala ere, animaliak jotzeaz damutzen naiz”. Antzerkiko taldekideen esanetan, “Amaiari gidoia ikastea kostatu egiten zaio, baina badaki intepretatu behar dituen pertsonaiak bere erara transformatzen. Domadorearena egin behar zuen, eta eraldatzen jakin zuen. Modu horretan, papera interpretatzea errazagoa eta hobe izaten da”. *Autobusaren zain* antzezlanean, berriz, mutua zen ume batena egiten zuen. Tailerreko lagunek

diotenez, “hitzik ikasi beharrik ez zeukanez, Amaia erraz moldatu zen pertsonaiarekin. Memoria txarra izan arren, paperean sartzen daki eta horrek asko balio du”. Ikasturte honetan, *(Lo)turak* izeneko obra landu dute. “Enpresako mantentze-lanetarako langilea naiz, baina ez dut ezer konpontzen”. Udazkeneko topaketetan ere antzeztuko dute.

Taldean “giro bikaina” daukatela dio Amaiak. “Beti laguntzeko prest izaten naiz, eta oso ongi moldatzen naiz gainontzeko kideekin. Gure afaritxoak ere egiten ditugu, adin tarte nabarmena izan arren taldekide gazteenaren eta zaharrenaren artean –18 eta 65 urte–. Batzutan gazteenak izaten dira erretiratzen aurrenak, eta hain gazteak ez garenak berandurarte egoten gara tertulian”.

Baina, antzerkia ez da aktore bezala Amaiak ezagutu duen lanbide bakarra. “2009an, *Izarren Argiak* filmean parte hartu nuen estra moduan. Paper berezia bete nuen, Ondarretako kartzelako preso batena. Neure ama halaxe egon zen, preso, eta asko eragin zidan horrek. Behin, grabatzen ari ginela, preso guztiek triste egon beharra geneukala agindu zigun zuzendari ordeak, gidoiak hala eskatzen zuelako. Emakume guztiak triste jartzen saiatu zen zuzendari ordeak, filmean gertatzen ari zena

benetan gertatzen ari zela sinestaraziz ia. Gehiegizkoa izan zen hura niretzat, eta negarrez hasi nintzen. Negar egiteko joera handia dut. Nik negar pila egiten dut. Preso guztiak pilatuta geunden eta ni atzealdeko ilaran nengoen. Negarrez hasi nintzela ikusi orduko, segituan lehenengo ilarara ekarri ninduen zuzendari ordeak”.

Preso askori ilea mozten zioten falangistek, negar nola egiten zuten ikusteko. Arrazoi horregatik, pelikula errealagoa izateko, zenbait estrari ere ilea moztea komeni zela esan zioten. “Ni pronto agertu nintzen horretarako. Ez zitzaidan asko inporta hori egitea. Hala, beste emakume batzuei bezalaxe, hile motx-motxa jarri zidaten neuri ere”.

Esklabetan grabatzeaz gain, Artikutzara ere joan zen filmaren beste zati batzuk grabatzera. “Esperientzia polita izan zen. Pelikula gehiagotan ere parte hartu izan dut; trenaren museoan egin ditugun hainbat grabaziotan, besteak beste”.

MIOPIA

Gaur egun, betaurreko arruntekin ibiltzen bada ere, “kristal lodi-lodiekkin” ibili zen Amaia 1990. hamarkada ingurura arte. “Miopia progresiboa neukan,

txiki-txikitatik. Eskola garaian hasi zitzaidan bista jaisten, eta urteek aurrera egin ahala, beti okerrera egin zidan ikusteko ahalmenak. Nire betaurrekota-ko kristalek zeukaten pisuaren ondorioz, belarri atzeak eta sudur gaina urratuta izaten nituen. 1980ko hamarkadan, lentillak ibiltzen hasi nintzen, eta ordutik aurrera, kasualitatez edo, ez zait bista gehiago okertu. Garai hartan, begi batean minus 18ko miopia neukan, eta bestean, berriz, minus 20koa. Lentilla gogorrak nituen, artean bigunik ez zegoelako. Sekulako arazoak izan nituen”.

Urte batzuk geroago, katarata gaitza etorri eta ebakuntza egin zioten. “Operatzerakoan, miopiarekin neukan arazoa ere konpondu zidaten, neurri batean. Lentillak jarri zizkidaten eta 1.5eko miopia besterik ez zitzaidan geratu”. Horregatik, oraindik ere, ez du lortu betaurrekoengandik libratzea. “Baina, orain ditudanek ez dizkidate belarri atzeak eta sudur gaina urratzen. Ikusmena guztiz konpondu ez bazidaten ere, alde ederra somatzen dut”.

ELIZKALEKO FESTAK

Korputz zortzigarrenean izaten da Elizkaleko Korputz jaien eguna. Korputz eguna Aste Santua

amaitu eta 40 egunera izaten da, handik zazpi egunera Elizkaleko festak. “1980an hasi nintzen hainbeste maite ditudan kaleko festak antolatzen. Jende gehiagok ere esku bat botaz laguntzen digute, baina bestela, hiru lagunen artean antolatzen ditugu: Eba Iturain, Arantxa Orbea eta hirurok”.

Iruñeako Sanfermin festen parera iristen ez diren arren, aspertzeko aukera gutxi ematen duen egitaraua prestatzen dute hiru lagunen artean. Itxaferoa, Erratz txapelketa, buruhandiak, kaleko hildakoen omenezko meza, triki poteoa eta gitarra poteoa, dantzariak, trikitilariak, erromeria, afaria eta beste hainbat ekintza prestatzen dituzte Elizkaleko jaietarako.

“Umea nintzela ospatzen ziren festak, baina ez ditut gogoan. 1980an, gure kaleko festak antolatu beharra zegoela otu eta hala hasi nintzen”. Urtero hutsik egin gabe antolatu ditu. 2010ean, berrikuntza bat ere izan zen. “Auzo afarian janari begetarianoa eskatzeko aukera izan zen. Galera bat ere izan zuten, ordea, urte hartako jaiek. Nesken arteko pala txapelketan jende gutxi animatu zenez, ez genuen antolatu. Nolanahi ere, ez dugu ekintza hori betirako kendu. Jendea animatzen bada, berriro ere antolatzeko prest gaude festetako taldea”.

Hogeitalau urtean irten zen Amaia Sansebastianetako
danborradan zuzendari Amnistia taldetik.



Urtero irtetzen dute Amaiak eta
lagunek astelehen karnabalean
mozorrotuta. Argazkian,
erromatarrez jantzita.

AMNISTIAKO TALDEAN ZUZENDARI

Hogeitalau urtean irten zen Amaia Sansebastianetako danborradan zuzendari Amnistia taldetik. Azpeitiko danborradan talde bat zuzentzen irten den lehenengo emakumea da Amaia. “Aurrenekoz, 1981eko San Sebastian Egunean atera nintzen, banderaren jaitsieran, hain zuzen. Talde hari esker irten zuten lehenengo aldiz, gizonezkoek eta emakumezkoek batera danborra jotzen. Azpeitiko aurreneko talde mistoa izan zen Amnistiarena”. Lehen urtean hainbat taldek bat eginda irten zuten, baina 1982tik aurrera, presoen aldeko taldea da Amnistiakoa. Bandera eraman zuen aurreneko gizona ere talde hartakoa zen, Iñaki Regil *Matxote*.

“Emozionatu egiten nintzen gauerdian, bandera igotzerako momentuan. Bizi egiten dut danborrada. Hutsik egin gabe 2004. urtera arte jarraitu nuen txapazko danborrak zuzentzen. 2005ean uztea erabaki nuen, gazteagoei tokia uzteagatik”. Taldeak 25 urte bete zituenean, hau da, Amaiak irteteari utzi zionean, oroigarria eman zion Udalak Amnistia taldeari. “Taldeak, gero, neuri ematea erabaki zuen, eta etxean gordeta daukat oraindik”.

Ordura arte danborra jotzen inoiz atera gabea zen Amaia, eta Arrantzaleen taldean aukera suertatu zitzaion urtebete beranduago. “Aukera aprobe txatu eta ahizparekin batera irten nintzen. Gustura ibili nintzen, ederra izan zen. Hala ere, gehiago ez dut danborrik jo. Behin irtenda nahikoa dut, nahiz eta berriro irteteko gonbidapena eman zidaten. Jendeari tokia utzi behar zaio”.

KARNABALETAKO MOZORROAK

Urtero irteten dute Amaiak eta lagunak astelehen karnabalean mozorrotuta. “Lau edo bost hasi ginen irteten, eta orain zortzi-hamar ibiltzen gara. Hiru ahizpak eta beste bost edo zazpi lagun izaten gara, normalean. Urtero norbaitek kale egiten du arrazoi batengatik edo besteagatik, baina taldetxoa urtero izaten gara mozorro gauean kalean bueltaka, geure disfrazak erakusten. Talde bezala huts egingo bage nu urteren batean, guztiak hoztu eta gehiago ez irteteko arriskua dago. Horregatik, urtero irteten saiatzen gara, eta orain arte lortu dugu”.

“Egun horretan mozorrotuta irten behar da, bestela ez dauka graziarik. Gainera, primeran pasatzen dugu mozorrotuta. Egun berezia da. Lehen

jende gutxiagok irteten zuen, baina denborarekin indarra hartzen joan da eta orain ederragoa da”.

Azaro inguruan hasten dira bilerak egin eta zertaz jantziko diren erabakitzen. “Astelehen karnabalerarte, noski, sekretuan gordetzen dugu. Urte batzutan nahiko erraz prestatu izan ditugu trajeak, baina badira lan mordoa eman izan digutenak ere. Behin erromatarrez jantzi ginen, Neron eta bere neska lagunaz. Lan mordoa eman zigun moxorroa izan zen hura. Merezi izan zuen, ordea. Lehenengo saria eman ziguten moxorroagatik. *El Corral de la Pacheca* –Andaluziako taberna flamenkoa– bezala jantzita ere atera izan gara, baita Bikingoz, mendizalez eta Hare Krishnaz ere”.

Txikiteo Elegante eguna ere “ederra” dela dio. “Baina, Azpeitian elegantzia edo dena delakoa erakustea oso modan dagoen fenomeno denez, hainbat jendek izugarrizko fortunak gastatzen ditu panpoxa-panpoxa irteteko igande goizean txikiteora”. Beste askori bezala, hori ez zaio gustatzen Amaiari, eta sarritan kritikatzten du. “Behin, Maite ahizpa eta biok irten genuen, baina dirutzarik xahutu gabe. Ama zenaren arrokekin, geuk egindako kapelekin eta poltsa handi banarekin. Txikiteo Elegantearen hasierako urteetan, horrela irteten zen jendea.

Baina, denborarekin, erakutsi beharrak guztiz aldatu du egunaren kontzeptua”.

PORTO NOVO

1990 inguruan, Porto Novo (Benin, Afrika) herrian izan zen hilabete pasatzen Eibarko lagunarekin. Garai hartan han zuen anaia misiolari. “Leku oso pobrea da hura, denak hanka hutsik, errepideak zuloz beteta, plazak eta kaleak ondarrezkoak... Baina, irrati bat musikarekin jarri eta denak dantzan gustura hasten dira”. Anaiak eman behar zuen meza entzutera joan zenean, ikusi zuen nolako elizak zituzten han. “Baso erdian lau makila lurrean sartu, eta gainean tela bat jarrita”.

“Hegazkinean ordu pilo bat eginda eta eskala kanariar irletan egin ondoren, iritsi giren halako batean Porto Novora. Ez nuen ongi etorri oso ona izan, maleta galdu baitzitzaidan bidaian. Arropa guztia han neukan eta soinean neukanarekin geratu nintzen. Anaiari deitu nion, eta bertako andre batzuekin hitz egin zuen. Plantxa-plantxa egindako beraien arropak ekarri zizkidaten. Hango jendea bezala ibili nintzen jantzita. Maleta 20 egunetara berreskuratu nuen”.

Safari txiki bat ere egin zuten. “Elefanteak ikusi genituen. Herria ere ikusi egin behar, eta anaiak taxia hartzeko gomendatu zigun. Han taxiak bestelakoak dira oso, autoen ordeztu motorrak ibiltzen dituzte”. Bakoitza motor banatan, txoferrak ziztu bizian ibili ziren, zuloz betetako errepideetan. “Ez seinalerik eta ez semafororik, han bakoitza nahi duen bezala ibiltzen da. Hangoak ohituta daude, baina gu ez. Oso esperientzia polita izan zen, baina zulo haiekin eta abiadura harekin pasa nuen beldurrarekin, uste dut ez nuela ia ezer ikusi”.

Porto Novoko ume baten amabitxi egin zen hango egonaldian. “Ekitalditxo bat egin behar genuen hori zehazteko, eta bezperan hondartzara joan ginen bazkaltzera. Lapiko handi batean arroza zegoen bazkaritarako eta ez zegoen kubiertorik. Eskuekin jan beharra zegoen. Azal zurikoa naiz eta erraz erretzen naiz. Hondartzan eguzkiak gogor jotzen zuen, eta azala zuria izatetik gorria izatera pasatu zitzaidan”. Hurrengo egunean, hauraren etxera joan behar zuen bazkaltzera Amaiak. “Buruz behera lo egin behar izan nuen, eta jaikitzerakoan ezin mugituta nongoen neukan minagatik”. Minari aurre egin eta mutikoaren etxera joan ziren bi neskak bazkaltzera, Mikelekin. “Mahai bat zegoen



1990 inguruan, Porto Novon (Benin, Afrika) hilabete pasatu zuen Amaiak, anaia bisitatzera joanda.



Ezaguna izan zen oso Amaiaren *Isokarrue* edo hiru gurpileko motorra, 1990eko hamarkadaren hasieran.

etxean, eta iritsi ginenean guztiak jaiki eta guretzako janaria ateratzen hasi ziren. Nik eseritzeko esan nien guztiek batera bazkaldu behar genuela. Bertako ohitura hura zela eta hala egin beharko genuela esan zidan anaiak. Laguna eta biok eseri eta arroza atera ziguten. Pikantea zegoen oso, tripa sutan jartzen zuen. Otordua behingoz bukatzeko azkar jatea pentsatu nuen”. Etxekoek, ordea, Amaiari jatekoa asko gustatu zitzaiola pentsatu zuten eta beste platerkada bat atera zioten. “Ni, bukatu nuelakoan, eta bestea atera ez zidaten ba! Gustatu zitzaidalakoa. Edatekorik ez genuen, eta anaiari ea zerbait eskatzea bazuen esan nion. Garagardoa atera ziguten. Epel-epela zegoen, eta lehendik jan behar izan nuen pikanteaz aparte, garagardo epel hura edan behar izan nuen. Anaia aldamenean barrez lehertu beharrean nuen”.

Bazterrak ikusten asko ibili ziren, eta behin gauez zinemara joateko plana egin zuten. “Aterperik gabeko zinema zen eta gu ginen hango zuri bakarrak. Pelikularen erdian euria hasi zuen. Hemengo tanta potoloen moduko euria egiten du han, mina ere ematen zuen gainera erortzen zitzai-gunean, eta segituan lurra lokaztu zen. Jende guztia presaka irteten hasi zen burua galduta bezala.

Laguna eta biok elkar ez genuen ikusten, bat bestearen gainean, izugarrizko kaosa zen hura. Azkenean, laguna eta biok elkartu eta aldegitia lortu genuen”.

Beste batean, alboko beste herrixka batera ere gonbidatu zituzten euskaldunak. “Joan ginenean konturatu ginen hango askok ordura arte inoiz ez zutela pertsona zuririk ikusi. Azala ukitzen utziko al genien galdetzen ziguten ume guztiek”. Herri hartan hildakoen aldeko omenaldia egitekoak ziren egun hartan. “Sei bat mutil gazte tantan handi batzuk hartu eta haiek jotzen hasi ziren, oso polita eta interesgarria izan zen. Gero zanko handi batzuekin irten zuen batek, maskara beldurgarri batekin. Askotan guregana gerturatzen zen gainera, eta beldurra ematen zuen. Baina, oso ederra izan zen erritu guztia. Bukatu zenean, anaia gure aurretik abiatu zen beste batzuekin berriketan eta, gu atzetik gindoazenez jende guztia geure gainera etorri zen. Beldurtu egin ginen, denak geuregana etorrira, ia ezin baikenuen mugitu ere egin. Anaiari deika hasi nintzen eta haien hizkuntzan zerbait esan ondoren bakean utzi gintuzten. Herri hartako oroitzapen oso ederrak ditut”. Gustura kontatzen ditu Amaiak hango esperientziak.

ANIMALISTA

“Animaliekin egiten den edozein ekitaldiren kontra nago. Zezenketak, soka muturra, idi probak, asto karrerak... Baita, larruzko arropen eta animaliekin esperimentuak egitearen aurka ere”. Bere ideiei tinko eutsiz, borroka mordoa egindakoa da Azpeitiko *animalistarik* ezagunena. “Animalien gaia nirere bizitzako parte garrantzitsua da. Eba eta biok begetarianoak gara 2007az geroztik. Animalistekin urte asko generaman ordurako lanean, eta hainbat dokumental ikusi eta informazioa jaso ondoren, begetarianoak egiteko erabakia hartu genuen. Kanpora joanez gero, jateko garaian zailtasun handiak izaten ditugu, baina gero eta zabalduago dagoela antzematen da. Hori bai, askotan jan behar izaten dugu tortilla bat gustuko beste janari begetarianorik izaten ez dugulako”.

Gaztetatik izan du Amaiak animalien eskubideak defendatzeko nahia. “Gure ama zena zezenzalea zen. Saninazioetan zezenketak ikustera gogoz joaten zen. Umetan zezenketetara joan ez arren, ez nintzen gehiegi jabetzen animalien eskubideetaz. Denborarekin, ordea, kontzientziazten joan, eta niretzat hain garrantzitsuak diren animalien esku-

bideez konturatzen hasi nintzen”. Gaztetan izan zen hori, eta bere kontura lana egiten zuen arren, 1990eko hamarkadaren amaieran hasi zen talde animalista batekin harremanak izaten. “Dirudienez, bi neska agertu ziren Korrale tabernan, animalien eskubideen inguruko eskuorri batzuekin. Azpeitian animalien eskubideekin konprometiturik zegoen inor ezagutzen al zuten galdetu, eta bertakoak nirekin oroitu ziren”.

Hurrengo batean, Amaia Korraletik pasa zenean, paperak eman zizkioten. “Horrela, harremanetan jarri nintzen talde harekin. Bizkaiko zezenketen aurkako eta animalien aldeko elkartekoak ziren bi neska haiek. Oso ongi prestatutako taldea da, eta asko ikasi dut haiekin. Donostiako Animalistak taldearekin jarri ninduten harremanetan, lanerako erosoagoa izango zelako. Herrian egiten ditudan kanpainetako kartel asko haiek emandakoak dira, eta informazioa ere ematen didate”.

Azpeitian ere sortu zuten Animalien Aldeko Taldea. “Diruzaina, lehendakaria eta kargu ezberdinak izendatu genituen. Herriari ere aurkeztu genion taldea, prentsaurreko bidez, baina azkenean ez zuten legeztatu eta ezerezean geratu zen proiektua. Legeztatuz gero indar gehiago hartzen

da eta elkarte bezala Udalean hainbat eskari egiteko aukera izango genuke. Diru laguntzak ere jasoko genituzke, eta hori laguntza handia da”. Gaur egun, Donostiako taldearekin bildu eta berriro taldea osatzeko lanean dabil Amaia. “Badakit ez dela erraza izango. Azpeitian jende asko dago animalien alde dagoena, baina gauza askotan bezala, jende gutxik nahi izaten du bustitzea. Jendeak animoak ematen dizkit, baina lanerako garaian, gutxi izaten dira laguntzen didatenak”.

Taldea ez sortzeak, ordea, ez zion lanerako grina kendu Amaiari. Urte osoan jarduten du animalien eskubideak bermatzearren eta herritarrak informatzeko lanean. San Inazioetan zezenketak, Loiolako festetan asto karrerak, idi probak, ahari jokoak, larruzko arropak, animaliekin egiten diren probak... Guzti horien aurka egiten du lana urte osoan zehar. “Informazioa zabaltzeko kartelak neuk egiten ditut etxean eskuz. Jendea informatzeko tresna egokia direla uste dut. Hala ere, badaude kartelak kentzen ibiltzen diren zentsuratzaile txikiak Azpeitian”. Soluzio erraza dauka Amaiak horrentzako. “Kartel handiagoa jarri lehenago zegoenaren tokian. Berriz kentzen baldin badute, oraindik eta handiagoa jarri”.

Talde animalistarekin biltzen hasi eta gutxira egin zuten zezenketen aurkako lehenengo manifestazioa. “2000ko hamarkadaren hasieran, Bilboko batzuk ekarri zuten manifestaziorako pankarta, baina gazteleraz idatzita. Gazte batzuek hartu zuten euskaraz egiteko konpromisoa, baina ez zuten egin eta gaztelerazkoarekin irten ginen”. Hurrengo hileko Uztarriako alean, han azaldu zen gezia beheraka zuela pankarta haren argazkia.

Saninazioetan, urtero, egiten dute ekimenen bat zezenketen kontra. “Manifestazioarekin hasi ginen, baina denborarekin jende gutxiago hasi zen etortzen. Azken urteetan, kontzentrazioa egiten dute zezen-plaza aurrean. “Gogorra izaten da ekimena. Han gaudenean, zenbait zezenzaleren hitz gogorrak entzun behar izaten ditugu. Tentsio handiarekin egoten naiz bertan, baina jende gutxi joanda ere ez diot parte hartzeari utziko”.

‘ISOKARRUE’

Ezaguna zen Amaiaren *Isokarrue* edo hiru gurpileko motorra, 1990eko hamarkadaren hasieran. “Zazpi urte inguruan izan nuen. *Lanbretta* bat izan nuen aurretik, eta hura saldu nuenean erabaki nuen

Isokarroa erostea. Garbiketa lanerako oso erosoak zelako erosi nuen. Motoko karneta bakarrik dut, kotxekorik ez dut ateratzeko asmorik. Izorratu egin zitzaidan azkenetako, ordea, eta ordutik ibilgailurik gabe nabil. Garbiketa guztiak Alde Zaharrean egingen ditudanez, ez dut ibilgailu baten hainbesteko beharrik”.

1993 inguruan, Arantxa Mendizabalek eta biek Hego Euskal Herriari itzulua eman zioten, Amaiak hainbeste maite zuen motorrean. Afari batean elkar ezagutu eta lagunak egin ziren Arantxa eta biak, duela 30 urte. “Azpeititik, Done Mariara (Nafarroa) abiatu ginen. Garai hartan ahizpa han nuen moja, eta bertan pasa genituen pare bat gau. Beharrezkoa zen motorrari deskantsua ematea, azkar berotzen baitzen. Horregatik, lo egiteko gertzen ginenetan, gau bat edo bi pasatzen genituen. Beti, ezagunen baten etxean. Isokarroaren atzeko aldean ere egin genuen lo pare bat alditan”. Handik Bermeora joan ziren. Gero, Algorta aldera, eta Bizkaia utzi eta Arabako bidea hartzea erabaki zuten, Gasteizera joateko. Arabarren hiriburutik, Agurainera, hango lagun batzuen etxera. Gipuzkoara abiatu ziren ondoren, Tolosara. Bidaiari amaiera emateko Donostiara abiatu ziren,

eta handik etxera itzuli ziren. “Bidaia hartako oroitzapen bikainak ditut”.

“Aldapa behera nahiko azkar joaten zen makina, baina gora ezinean joaten zen. Ez zen orduko 60 kilometro baino gehiago harrapatzeko gauza. Kaletatik pasatzerakoan, umeak animatzen hasten zitzaizkigun, motorra ezinean joaten zelako”. Istoria, ordea, ezin anekdotarik gabe borobildu, eta badaukate bat. “Autobian sartzea erabaki genuen, Tolosa inguruan. Ez genekien debekatuta zegoenik, eta bat-batean polizia agertu zitzaigun. Han makina harekin ibiltzerik ez genuela esan ziguten eta isuna jarriko zigutela. Azkenean, aurpegi ona edo ikusi eta isuna barkatu ziguten. Poliziaren autoko argiak piztuta, errepideraino lagundu ziguten”.

BIKOTE HARREMANAK

Hogeitalau urte ingururekin, Eibarren lanean zebilela, mutil bat ezagutu zuen Amaiak. “Elkarrekin ibiltzen hasi eta zortzi urtean bikote izan ginen”. Harreman hura amaitu eta gero, beste eibartar bat ezagutu zuen Amaiak. Oraingoan, neska bat. “Lesbianen mundura gerturatu ninduen hura izan

zela esan daiteke. Orduan hasi nintzen emakumeak gustatzen zitzaizkidala konturatzen”. Geroago, beste bikote batzuk ere izan zituen, baina Eba ezagutu eta harekin ezkondu zen 2005ean.

EBAREKIN LEHEN HARREMANA

2000. urtean ezagutu ziren Eba eta Amaia, *Gara*-ko kontaktuen atalari esker. “Ebak tabernan lana egiten zuela, musika, zinema eta kirola gustatzen zitzaizkiola eta neska bat ezagutu nahiko lukeela ipini zuen iragarkian. “Hura irakurri eta deitzea erabaki nuen. Pixkanaka, hitz egiten hasi ginen, eta gehixeago ezagutzeko gogoia genuenez, 2000. urteko Sansebastian bezperan, Orkatz tabernan egin genuen zita”. Ebak ez zuen Azpeitia ezagutzen, eta are gutxiago Orkatz.

Amnistiako talde guztiak danborradan irten aurretik afaria zeukaten, eta Orkatzen zeuden geratuta danborjoleak. “Orduan zen agertzekoa Eba Orkatzera, eta jendeari galdetuta taberna aurkitu zuenean, tximista baino azkarrago sartu zen”. Fisikoki ez zuten elkar ezagutzen, eta momentua iritsi arte nola ezagutuko ziren jakin gabe egon zirela gogoratzen dute biek. “Gazte jendez beteta

2000. urtean ezagutu ziren Eba eta
Amaia, *Gara*-ko kontaktuen atalari
esker. Handik bost urtera zibilez
ezkondu ziren, Enparan dorretxean.



zegoen Orkatz, neu nintzen zaharrena, eta Eba sartu zenean segituan pentsatu nuen bera izango zela Zarauztik etorritako laguna. Batetik, azpeitiarra ez zelako, eta bere adin inguruko bakarra zelako. Elkarri begiratu eta Eba izan zen aurea hartu zuena. ‘Amaia?’ galdetu zidan, eta orduan nik, ‘Zu Eba, ezta?’”. Elkarrizketa sinple harekin hasi zen bien arteko harremana. Ez da inoiz jakingo gau hartan zenbat bikote sortu eta desegin ziren Orkatz tabernan, baina bat behintzat sortu zela ezin daiteke ukatu. “Aurkezpenen ondoren, Eba Amnistiakoekin etorri zen afaltzera, aurretik hala hitz eginda geneukagulako”

Danborrada amaitu eta parranda ederra bota zutela gogoratzen dute biek. “Hurrengo goizean Zuhatz taberna garbitzera joan beharra neukan eta Eba neurekin eramane nuen. Ongietorri ederra eman nion”. Hala ere, horrek ez zuen Eba uxatu, egun bat pasatzera etorri eta astebete pasa baitzuen Amaiaren etxean. “Amak deitzen zion Ebari, baina ederki zegoela esaten zion alabak, lagun pila egin zituela eta oso gustura zegoela Azpeitian”.

Denborarekin, elkarren etxera joaten hasi ziren; azpeitiarra Zarautzera eta zarauztarra Azpeitira. Harremana estutzen joan zela esan daiteke.

LESBIANEN ARTEKO EZKONTZA

Sansebastian bezpera hartatik, urte batzuk pasa zirenean, 2005ean, Zapateroren Gobernuak homosexualen arteko ezkontzak legeztatu zituen. “Zerbait komentatzen hasi ginen legea onartu zenean, baina ezkontzearena ez genuen oso serio planteatu hasiera batean”. Urte hartako abuztuaren 5ean, Ebaren ama Manoli Solaberrietaren urtebetetze egunean, Argiñanoren jatetxean bazkaria egin zuen familiak. “Orduan hasi zitzaizkigun Ebaren familiakoak erdi brometan baina serio antzean, ezkontzea pentsatzen hasi beharko genuela, orain legeztatuta zegoelako. Orduan hasi ginen benetan, ezkontzearen ideiari bueltaka”.

Ezkontzeko erabakia hartu eta eguna ere zehaztu zuten, 2005eko urriaren 29a. “Biok nahi genuen Azpeitian ezkondu eta, beraz, tokiaren inguruan ez zen iskanbila handiegirik egon”. Ezkontzeko lanak nork egingo zituen zehaztea konplexuago izan zen. “Miren Odriozolak ezkontzea nahi genuen. Galdetu ere egin genion, baina baliogabea izango zela esan zigun, orduan ilegalizatuta zegoelako haren alderdia. Odriozolak ezin zuenez, Julian Eizmendi alkateak ezkondu gintuen, azkenean”.

Urriaren 29an, larunbatean, zuten ezkontzeko asmoa. Santu Guztietako zubia zetorren, orde, eta dirudienez, alkateak kanpora joateko plana egina zuen. “Ezkontza larunbatean egin beharrean, ostiralean egitea posible al zen galdetu zigun”. Ezkontzarengatik ez zuen zubiko egun bat galtzea nahiko. “Baiezkoa eman genion, larunbatean afaria egin beharrean, ostiralera aurreratzea zen. Bestela ere, afaria egiteko asmoa genuen”.

Zubiak zubi, eta oporrak opor, 2005eko urriaren 28ko arratsaldeko zazpi eta erdietan ezkondu ziren Amaia Garmendia Altuna eta Eba Iturain Solaberrieta, Enparan dorretxean. “Oso oroitzapen politak ditugu biok”.

Lurdes Arrieta joan zen Zarautzera Ebaren bila. Amaiaren bila, berriz, Juan Karlos Arellano joan zen Elizkalera. Zazpietarako pronto zegoen etxean Amaia. “Orduantxe euri zaparrada hasi zen eta Enparan dorretxean sartzean, artean, ere ari zuen. Bi autoak apain-apain jarrita ailegatu ginen dorretxe aurrera. Kanpotik etorri arren, Eba iritsi zen lehenago. Jende pila zegoen kanpoan, baina euria-gatik izan ez balitz jende gehiago izango zen.

Amaiaren familiatik Miren eta Maite ahizpak izan ziren zeremonian, Karmel eta Jexux Mari

zeremoniara ez, baina afaltzera joan ziren. Amaiaren anaia bikia Swazilandian, Afrikan, zegoen eta beste ahizpa Done Marian (Nafarroa). “Ezin izan zuten ezkontzara joan. Denera, ehun lagun inguru bildu ginen”. Biek ezagutzen zuten jende gehiena azpeitiarra zen, horregatik izan ziren gehiago azpeitiarrak zarauztarrak baino.

Enparan dorretxean, egin beharrekoak eginda, ezkondu zirenean, Amaia emozionatuta negarrez hasi zen, orduko argazkiek erakusten duten bezala. Zeremonia eta gero, guztiak Etxe Zuri tabernara joan ziren trago bana hartzera. Handik, Sagastizarrera joan ziren afaltzera. Amaiaren txoferrak eraman zituen ezkonberriak jatetxera. Jan beharrekoak janda, eta opari mordo bat jaso ondoren, parrandan segitzeko Xanaduko diskotekan zeukaten zita. “Sorpresa txiki bat antolatu nuen momentu hartarako. Dantzalekuan ziren guztien artean zozketa bat egitea erabaki nuen, eta tokatzen zitzaionak *streptase* bat egin beharra zeukan. Tokatu zitzaionari ez zion grazia handiegirik egin, antza, eta enteratu ez zen beste bati esan genion berari tokatu zitzaiola. Hark baietz esan zigun, eta azkenean biok atera ginen dantza egin eta arropa kentzera taula gainera. Maite ahizpak burutik jota

al nengoen galdetze zidan, baina Mirenek asko animatu ninduen. Ezkontzakoak bakarrik zeuden diskotekan, eta, beraz, ez zidan lotsarik ematen soinean neuzkan arropa batzuk kentzea. Jende gehiago egongo balitz ez nuke egingo”. Esan beharra dago ez zutela jantzita zeramaten guztia kendu, zeozker kendu eta nahikoa izan baitzen. “Detaile polita izan zen *streptase*”.

Streptase-a amaituta ere, festak bere horretan jarraitu zuen. Jendeak dantza piloa egin zuela imajina liteke, eta zenbaitetan gertatu ohi den bezala, pertsona batek hanka okertu zuen dantzari zela. “Nire txofer lanak egin zituen Juan Karlos Arellanori gertatu zitzaion. Hasieran, ordea, ez ginen gehiegi konturatu gertatu zenaz, eta konturatzeko autoa zeukaten guztiak Arellanori anbulatoriora laguntzera joanak ziren. Min hartu zuenarekin arduratuta, oinez abiatu ginen anbulatoriora, goizeko bostak inguruan”. Gazte jendea parrandan geratu zen Xanaduko diskotekan. “Ni amorratzen nengoen denak anbulatoriora joan zirelako eta gu ez ginelako enteratu ere egin. Eba, berriz, pozpozik zegoen, ilargipean ematen ari ziren paseo-gatik. Oso polita izan zen”. Ibilaldiaren ondoren, min hartu zuena anbulatoriotik irteten ari zen

momentuan iritsi ziren ezkonberriak hara. “Orduan jakin genuen zaintiratua egin zuela Arellanok. Esan beharrekoak elkarri esanda, bakoitza bere etxera abiatu ginen. Etxerako bidean, ordean, bikote eza-gun bat ikusi eta beste bide bat hartu genuen, Etxe Zurikoa, hain zuzen. Hantxe egon ginen trago bat edo beste hartzen goizeko zortzi eta erdiak ingurura arte bi lagun haiekin”.

Hurrengo astelehenean, Bartzelonara abiatu ziren bi ezkonberriak bidaia egitera. Astebete pasa zuten han eta anekdotarik ez daukaten arren, “ederki pasatu” zutela gogoratzen dute.

EZKONTZARAKO PRESTAKETAK

Ezkontza eguneko prestaketekin “lasai ibili” zela dio Amaiak. “Ezkontza egunean joan nintzen ile apaindegira, ilea tindatu eta apur bat makillatzera”. Arropak ere egin behar izan zituen, nahiz eta erosketetara joatea Amaiari ez zaion batere gustatzen. “Kostata, baina Donostia aldera eramanez ninduten Miren ahizpak eta Lurdes Arrietak erosketak egitera. Oso erosketa azkarrak izan ziren egun hartakoa. Denda batean sartu, traje bat ikusi, neurria aukeratu eta kito. Gero, bigarren dendara joan,

alkandora eta neurria berriro aukeratu, ordaindu eta kanpora. Azkar itzuli ginen Azpeitira. Zapatak erostea ahaztu zitzaigun, ordea, eta beste egun batean Donostira itzuli beharra geneukala konturatu ziren nire laguntzaileak”. Azkarra izan zen zapatak behar zituenaren erantzuna. “Zapatak azokatik erosiko nituela esan nien. Halaxe egin nuen. Astearte goiz batean azokara joan, zapata polit eta merke batzuk erosi eta buelta etxera, Donostiaraino alfer-alferrik joaten ibili gabe. Beste edozeinek 200 euroko zapatak erosiko lituzke, baina nik ez. Nik 20 eurokoak nahikoak ditut, dirua alferrik gastatzen ibili gabe”.

ELIZAZ EZKONTZEA NAHI

Bai Amaiak eta baita Ebak ere, garbi daukate elizaz ezkontzea nahi dutela. “Biak sinestunak gara, eta bion nahia elizaz ezkontzea da”. Horrelakoxeak dira, ordea, elizaren lege eta arauak, eta oraindik ez diete homosexualei handik ezkontzen uzten. “Apaizen batekin ere hitz egin dugu gaiaren inguruan, eta bat edo beste ideia horren kontra agertu ez den arren, ez dago haien esku erabakia hartzea”. Hori badaki bikoteak, jakina. “Hala ere, eztabaida

Amaia Garmendia neska
koskorra zen garaiko argazkia.



gogorren bat ere izandakoak bagara. Nik beti esaten dut, elizara inoiz azaltzen ez direnak, gero, betiko parafernalía egiteko, hara joaten direla ezkontzera. Eba eta biok hori aurpegiratzen diegu apai-zei. Igandero mezetara joaten ez garen arren, fededunak eta elizkoiak gara gu, eta hala ere elizak ez digu han ezkontzen uzten”.

BIOGRAFIA EZ DA AMAITZEN

Maleziarik gabekoa, baina bihurrikeria zalea, eta geldirik egotea ezinezkoa zitzaiona. Halakoa zen Amaia umetan. Urteekin, hazi bai, baina artean maleziarik ez zitzaion etorri. Bihurria izateko joera, ordea, galdu zuen. Beti zeozer egiteko beharra, berriz, ez zitzaion sekula joan. Hala jarraitzen du oraindik, eta ez du, gainera, aldatzeko itxura handirik ateratzen.

Bizi osoan erakutsi duen bezala, ez du etsitzen, eta behar den heinean lanean jarraitzen du, bere ideiekin bat datorrena lortu arte. Jende gutxik laguntzen badio ere ez du etsiko. “Jende gutxi joaten bada ere, joan. Lau lagun, hiru, bi edo baita bakarra bada ere. Joan”. Joan behar denean joango da lanera, manifestaziora, edo dena delakora.

Oraindik ez du erretiratzeko asmo gehiegi duenik erakutsi; beraz, liburuxka hau amaitu arren, Amaia Garmendia Altunaren biografiak aurrera jarraituko du.

UZTARRIAREN PRODUKTUAK

LIBURUAK

Joxe Takolo	Enekoitz Esnaola, 2001
Angel Otaegi	Iban Arregi, 2001
Imanol Elias	Mailo Oiarzabal, 2002
Patxi Altuna	Josune Etxeberria, 2003
Azpeitiko efemerideak	Imanol Elias, 2003
Azpeitiko mendi gida	Lagun Onak Mendi Bazkuna eta Uztarria, 2004
Euskarazko prentsa eta Azpeitia	Uztarria, 2004
Loiolarik ez balitz	Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi, 2005
Otsobeltz	Andoni Salegi, 2005
Urrestillako musika taldeak	Asier Sustaeta, 2006
Azpeitiarrak Espainiako Gerran	Amaia Mendizabal, 2006
Oroitarri	Kepa Urbieto, 2008

CD-A

Urolaldeko bertso zaharrak	Emiarraitz Bertsozale Elkarte eta Uztarria, 2007
----------------------------	---

LIBURUXKA BIOGRAFIKOAK

Julian Bereziartua	Ander Ugarte, 2009
Leo Etxeberria	Miren Garate, 2009
Valentina Agirre	Olatz Prat, 2009
Santi Lazkano	Nekane Zinkunegi, 2010

UZTARRIAREN BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



